



Ula Iruretagoiena °

Aldiri, 2013, III, 15, 18-19, ISSN 1889-7185

Jasotze-data: 2013-04-20 / Onarpen-data: 2013-05-17

Jabier Puertas-ekin solasean «Paisaia industrialia ulertzeko eredu berri baten alde lan egin behar da»

Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte orain dela 30 urte sortu zen eta estatuan lehenetarikoa izan da ondare industrialaren babes- eta hedatze-lanetan hasi dena. Elkartearen sorrera, ondare industrialia eta, euskal herri-lanen balio historiko, artistiko eta teknologikoez jabeturik, hauek guztiak babesteko helburuaz jaino zen. Jabier Puertas Elkartearen lehendakaria da.

Elkartearen helburuetako bat ondare industrialaren dokumentazio-lana da.

Ondare industrialaren dokumentazio-lana 90eko hamarkadan hasi genuen eta elkarteak gauzatutako lehen ekintza izan zen. Ondareen ezagutza sakonak berorren balioaz jabetzeko gaitasuna eskaini zigun eta, horrela, babesteko eta sailkatzeko irizpideak ezarri genituen (1.227 elementu jaso genituen eta estatuan egindako lehen dokumentazio-lana da). 2006. urtean Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza berri batekin lan horren berrikuste- eta zabaltze-lanak egin genituen XX. mendeko ondareak ere jasoaz (guztira 2.680 elementu).

Berriki Euskadiko Industria Ondarea liburua argitaratu duzue.

Dokumentazio- eta zerrendatze-lana egin ostean, elkarteak zera ondorioztatu zuen. Baloratze-lan hau, administrazioarentzat kudeaketa-tresna izateaz gain, zerrenda erreferentziatzko dokumentu bilakatu zela gure historia gertua ezagutzeko unean. Hori dela-eta, jarraian elkarteak monografia bat argitaratzea proposatu zuen, euskal ondare industrialaren laburpena jasoaz eta haren berri aditzera emateko xedeaz. Kultura Sailak argitaratutako liburu hau gauzatzeko sailkapen-lan handia egin genuen, berezko katalogoan elementu anitz eta heterogeneoak baitzeuden. Horrela, zahartasun, estetika, balio arkitektoniko, adierazpen-mailaren arabera, makineriaren egoeraren arabera, 600 bat elementu jaso genituen delako argitalpenean.

Zein irizpidek agintzen dute ondarearen dokumentazio-lanean?

Elementuen balio historiko, artistiko eta arkitektonikoak (osotasunean elementuek duten balio espazial eta ikonografikoa aintzat hartuz), elementuen gaur eguneko egoera eta haien erabiltze-potentziala edo prozesu produktiboen adierazpen-maila, zerrendatze-lana gauzatzeko irizpideak izan ziren.

Nola garatu da zuen lana postindustrializazio eta etxebizitzaren negozioren garaian?

Zailtasun handiak aurkitu ditugu. Euskadin azken hamarkadetan egin diren hiri-proiektu nagusiak egun batez aktibitate batek okupaturiko lurak berreskuratzean gauzatu dira. «Zentralitate berri»ko gune horietan eraldaketa fisiko eta funtzionalak proposatu dira, hala nola azpiegitura kultural eta turistikoak, parke tematikoak, ekitaldi internazionalak, jaialdiak. Guztiak marketin eta propagandaren helburu eta arkitektura enblematikoz beterik.

Hondaturik ziren espazio horien berreskurapen fisikotik hara- tago, industria-guneen operazioen helburua herri eta hirien hazkuntzarako espazio bikainak sortzea izan da. Hirigintza-proiektu handi horiek eragin sozio-espazial negatiboak izan dituzte eta soilik berriki ari gara desabantailak detektatzen. Berreraikitze-eredu honek «bi abidura» izan ditu. Herrien zentroetako espazioak berreskuratu diren bitartean, aldrietako auzoak ahaztu egin dira. Berreraikitzearen logikak bideragarritasun ekonomikoari jarraitu dio, funtzio bakarreko etxebizitzak sortuz eta higiezinen merkatu lokaleko etxebizitzaren prezioen gorakadan eragin zuzena izanik.

Zein izan da akatsa?

Hirien berregite-prozesuek ez dute, kasu askotan, plangintza eta antolakuntza ulertzeko beste proposamenik onartu. Arestiko industrializazio-espazioen kudeaketarako badira bestelako kontzeptu berriak, «ondare-plangintza», «ondare-guneak», «paisaia industrialia» eta abar.

Espazio horietan antzinako aztarnak suntsitzearekin batera, elementu «berriak» sortzen du eraikinaren irudia, arkitektoaren egiletza azpimarratuz eta, beraz, espazio horiek berreskuratzeko eta balioan jartzeko aukerei muzin eginez. Espazio horiek esanguratsuak dira paisaia kultural gisa, lurraldearen kulturaren erakusle baitira historiaren bitartez. Beharrezkoa da industria-espazioen gaineko lurralde kulturalaren inguruko begirada txertatzea espazioen edertasuna azpimarratu dadin. Industria-ondareak balio historiko, kultural eta estetikoak ditu eta beraren gaineko esku hartzeak haren identitatea antzeman behar du. Industria-espazioek paisaia kultural propio bat osatzen dute eta beharrezkoa da lurraldearen antolakuntza eta kudeaketan onartzea.

90eko hamarkadan Eusko Jaurlaritzak industria-hondarrak eraisteko programa bat jarri zuen abian, desindustrializazioaren bidea industriari okupaturiko azalerak berreskuratzean zetzan, industria-ondarea degradatu eta zaharkitua zegoelako argudioarekin.

Euskal Autonomia Erkidegoan «industria-hondarren» arazo oso garrantzitsua izan da azken 20 urteetan. Aktibatetarik gabeko industrialde handiek inpaktu negatiboa eragiten zuten lurraldean eta egoera hori hobetzera jo zuen Eusko Jaurlaritzaren Dekretuak. Argi dago egun beste garai batean bizi garena eta beharrezkoa da tresna honen egokitasunaz gogoeta egitea. Bide honetatik doktoretza-tesia garatzen ari naiz, 1992-2011 urte bitartean industria-hondarrak suntsitzeko erabilitako sustapen ekonomiko eta ekintzen inguruan.

Zein da gaur egunean ondare industrialak hartu beharreko bidea?

Gure Elkartetik paisaia industrial ulertzeko eredu berri baten alde lan egin behar dela aldarrikatzen dugu, berau berreskuratu eta balioan jartzeko. Lurraldearen eta kulturaren arteko elkarriketa ulertzeko paisaia industrialaren balioa goraiatu behar da, eta, horrela, haren edertasuna onartu. Ondare honen atzetik euskal identitatearen nolokotasuna dago eta, bide batez, paisaia honen ezaugarriak lurraldearen antolakuntza eta kudeaketaren zati izatea aldarrikatu behar da oso baliotsua zaigulako esandako ezaugarri guztiak direla-eta.

Ondare industrialaren zaharberritzean askotan antzinako egoeraren irudia berreskuratzeko nahiarekin egiten da, ondarearen balio historikoaren aitzakiaz.

Bai, azken urteetan ondare industrialen gaineko esku-hartze asko ez dira ongi egin, ondarearen identitatea gutxietsi duten lanak izan direlako. Gure elkartetik zaharberritzea eta berrera-bilera sustatzea beharrezkoa dela deritzogu irizpide historiko-zientifikoak ezarri ondarearen babespen eta balioztatzea modu egokian egin dadin.

Ondare industrialaren berreskurapenaz ari garenean, alderdi fisikoaz gain, eraikina berriz ere gizartearentzat erabilgarri egiteaz jardun beharko genuke. Ondare industrial museo bilakatzeko joera gainditu beharrean dela uste al duzue?

Ondare kulturala balioan jartzeko bide bakarra ez da eraikina museo bilakatzeko. Baina egia da ondare industrial baliabide turistiko ona izan daitekeela. Turismo industrialak kontuan hartu beharko du elementuen kontserbatzea eta arestiko espiritu eta

funtzionaltasunaren babespena, ondarea merkatu-produktu gisa erabili dadin gaitzetsiz. Turismoaren erabilerak ezin du ondarearen herentzia baztertu eta helburu nagusia biztanle kopuruaren hazkuntza baldin badu, estrategia arriskutsua izan daiteke eta epe laburrera begiratzen duen ekintza bilakatu.

Eredu onik al dago ondare industrialaren berreskurapenaren alorrean?

Ondare industrialak baditu ezaugarri eta identitate nahiko beste erabilera anitz jasotzeko: etxebizitzak, komertzioak, ekipamenduak... Ondare hauen berrerabilerak eta balioan jartzeak ez du zertan lan neketsua eta zaila izan, hainbat eredu on aurki dezakegu gure lurraldetik at, non iragana eta etorkizuna ederki uztartu diren hiri-erlaldaketa boteretsuak gauzatu. Adibidez, Ruhr bailaran, Manchester, Liverpool, Milan, Turin... industria-hiriak izan dira guztiak eta identitatea eta idiosinkrasia galdu gabe etorkizunerako prozesu eraldatzaileak jarri dituzte martxan memoria historikoa galdu gabe.

Egun ondarearen gaineko ikuspegi-aldaketa baten hastapenetan garena ematen du. BER- jokabidearen (berreskuratu, berziklatu, berrerabili) espiritu ekologikoa indarra hartzen ari dela ematen du eraikitakoaren gain eragiteko bide bezala. Abagune honi arriskurik aurreikusten al diozue?

Aukera argia da baldin eta ondare industrialaren gaineko esku-hartzean irizpide historikoak eta zientifikoak kontuan hartzen badira. Lanak egin aurretik beharrezkoa da ondarearen ibilbide historikoa aztertzea eta babespen-egoeraren lehen diagnosis egitea, hala nola kasuan kasu ikerketa zehatzak aurrera eramatea (arkeologikoa, makineriaren zerrendatzea). Aurre-lan honek Plan Zuzentzaile bat izan beharko luke ondorioztat non esku-hartzearen irizpide eta oinarriak zehaztu behar diren.

Zeintzuk dira zuen elkarrearen etorkizuneko erronkak?

Enpresa, biztanleria eta administrazio publikoari euskal ondare industrialaren balioa agerrarazteko beharrean aurkitzen gara. Ez da soilik interes historiko eta kulturalagatik baloratu behar. Eraikin-ondare hauetan makineria, paisaia eta gure herrialdea eraiki den oinarrien emaitza aurkitzen dugu, eta, beraz, gure etorkizuna berritzeko eta jasangarri bilakatzeko iturria ere hemen izan daiteke.

Bi erronka nagusi ditugu gure gidalerroetan une honetan: babespen-araudia lortzea gure herriaren iragan industrialazaltzen duten elementuen mantentzea ziurtatzeko alde batetik, eta bestetik, ondarea zaharberritzea eta balioan jartzea sustatu beharra dago, babespen-bermea lortzeko helburuaz.

Higiezin krisialdiak zaharberritzea aukera estrategiko bilakatu du eta zehazki arkitektura industrialak aukera zabalak ematen ditu eta horregatik enpresario eta sortzaileak, arkitektoak eta hirigileak deitzen ditugu ondare industrial begirada berritzaile batekin aztertzeko eta erabilera publiko zein pribatuentzako ideiak jaurti ditzaten.

* Ula Iruretagoiena arkitektoa eta EHUko irakaslea da.

